

# noaua

**2017an herri galdeketa  
antolatuko du Usurbilgo  
Gure Esku Dago taldeak**

**Herritarren  
proposamenak batu  
dituzte 'Kale Irekiak'  
ekimenean**

**Behobia Donostia  
lasterketan 48  
herritar irten ziren**



**NOAUA!ren 20. urteurrena  
borobiltzera datorren saria**

**INTZA**  
ILEA PA INDEGIA  
ESTETIKA ZENTROA

UDARA PASA ETA GERO, ZURE AZALA BERPIZTU ETA  
BERRESKURATU GURE AURPEGI ETA GORPUTZ  
TRATAMENDU BEREZIEKIN

## LASER DIODO IRAUNKORRA LIGHTSHEER® DIODO LASERRAREKIN

Depilatzeaz nazkatuta baldin bazaude, depilazio iraunkorra  
lortzeko aukera paregabea eskaintzen dizugu:  
(prezioak sesio bakoitzeko)

### EMAKUMEETAN:

Hanka osoak+ oinbularrak+ behatzak 149€ /  
Hanka erdiak+oinbularrak+behatzak 99€  
Izter erdiak 99€ Besoak + hatzak 79€ / Besaurreak + hatzak 69€  
Kokotsa + ezpaina 39€ / Besapeak 39€  
Besapeak + Ingleak (bikini) 79€ / Besapeak + Ingleak (brasildarrak)  
89€ Besapeak + Ingleak (osoa) 99€

### GIZONETAN:

Besapeak 39€ / Ingleak 49€ / Begitartea 19€  
Sorbalda + besaburuak 129€  
Sabelaldea + toraxa 153€  
Hanka osoak 194€ / Hanka erdiak 122€  
Besoak 99€ / Besaurreak 89€  
Ipurmasailak 79€

Nagusia 8, USURBIL 943 36 36 41 (egun guztia irekia)

Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu

## ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

2 etxebizitza gelditzen dira!

AZKEN 2  
ETXEBIZITZAK!

12 ETXEBIZITZA  
INGURUNE PAREGABEAN  
Agerreazpi<sup>n</sup>

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1<sup>o</sup> Behea  
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com

## Albiste iruditan

## Aspaldiko ilargirik "handiena"



Laino artean ezkutatu ikusi genuene batzuetan, baina lainoek ere ezin zuten ilundu, gaua argitzen ari zen *Superilargia*. Aspaldiko handi eta distiratsuena, bai behintzat 1948ko urtarilaren 25etik. Ohikoa baino %14 hazi-

ta, eta %30 distiratsuagoa ikusi genuen, astelehenetik astearterako gauean. Milioika lagun aritu zen mundu osoan *Superilargia* erretratatzeko. NOAUA!k gertuko, herriko argazkilari batena ekarri du lerrootara. Etxeko balkoitik erre-

tratatu zuen. Gau hotzak merezi zuen ahalegina, ez baita ohikoa ilargia hain hazita ikustea. Pentsa, 2034. urtera arte ez omen da berriz fenomeno hau errepikatuko.

Argazkia: Xingola Usurbil.

## Laburrean

## Santueneko etxebizitza bat, enkantean

Santuena 25 zenbakiko hirugarren ezkerreko helbidean kokatua dagoen etxebizitza enkantean atera du Udalak. Informazio gehiago, Udaletxean bertan: 943 371 951 kontratazioa@usurbil.eus

## Zuberoako ikastolak laguntzeko otarrak

Nafartarrak taldeak abiatutako kanpaina da. Abenduaren 9ra arte dago eskaerak egiteko epea: elkartea@noaua.eus, 943 360 321 edo lonxo@telefonica.net

■ Informazio gehiago: ikaskoli.eu

## Errigorako saskien banaketa

Otarrak eskatuak dituzuenok, datorren astean zehar jasoko ditugu. Jaso bezain laster jakinaraziko dizuegu eta ordainketak otarrak jasotzerakoan egin beharko dira.

# noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaua.eus // www.noaua.eus

Jendaurrereko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

## Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

## Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

## Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola, Ekhi Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Aritz Gorriti

## Defentsa “harrigarria”

A benduaren 28a zelakoan nengoen, harrirituta, Pello Zubiria aginagarriak Argian duen “Zero zabor” blogean irakurritakoarekin. Hondakinen kudeaketari buruzko informazio interesgarri askoa eskaintzen du puntualki. Duela egun batzuk esaterako, azaroaren 9an, Florentzian (Italia) erakitzen hastear zuten errauste plantaren baimenak balio-gabe utzi dituela epai batek, “legez erakitzekeko urrats administratiboak zuzen egin ez direlakoan”. Erraustegia erai-ki nahi badute, sustatzaileek tramitazio osoa berriz zerotik abiatu beharko du, Zubiriak berri eman duenez.

Ez da azken egunotan plazaratu duen albiste bakarra. Aste hasiera honetan bertan, harridura eragin didan beste berri bat ere argitaratu baitu. EAJ agintean duen Getxoko

Udalak atez atekoa jarriko duela Neguri eta Zugazarte auzoetan. Beno, han etxez etxekoa deitu diote jarri nahi duten sistemari. Ez dute herri osora zabalduko, bi auzuneetara. Gainerakoan, bosgarren edukiontzia jartzearen aldeko apustua egingo du Udalak, edukiontziak berritzearekin batera. Arreta gehien ematen duena ordea, Imanol Landa alkateak sistema honen alde egiten duten defentsa da.

Sarera igo duen bideo batean dioenez, “etxez etxeko bilketa zerbitzua, hasiera batean, Zugazarte eta Neguriko guneetan jarriko da abian, biztanleriaren dentsitate urriko guneak izategatik eta bertan dauden eraikinen baldintzogatik, azterlan bat egin ondoren. Sistema horrek birziklatze tasak handiagotuko ditu eta bide publikoaren itxura hobetuko du. Bilketa egutegi bat ezarriko


da eta jabeen erkidego bakoitzarekin toki bat adostuko da, zatiketa bakoitzari dagozkion hondakinak botatzeko. Ukuitako finkentzako erosotasun bat da, izan ere hondakinak atari bakoitzean bilduko dira. Hiriburu askotan ondo funtzionatzen duen bilketa sistema koordinatze aldera, ukuitako guneetan bizi diren herritarrekin bilerak egingo dira. Halaber herritar horiek telefono zenbaki bat dute eskuragarri kontsultak egin eta zalantzak argitzeke. Gure erronka 2022. urtean gaikako bilketa eta bereizketa osoaren %50era heletzea da. Zure laguntza ezinbestekoa da”, dio Landak.

Hitz hauek ez nindukete harritu beharko. Baina ezin dut ezkutatu neure harridura. Urteak eman ditugulako Gipuzkoan, atez atekoa sistema garesti, zikin, pribatutasunaren aurkako, eta inposatzailea

dela entzunez. Hizki berdineko alderdiko kideek ahotan hartutakoak dira hitzok. Esaterako, usurbildarrek eguneroko ohitura aldaketa batekin lortu dutenarekiko begirune gutxi erakutsi dute. Horregatik, azpimarratzeko modukoa da, talde politiko berean, hainbeste ika-mika eragin duen hondakinen kudeaketaren gai honetan, bestelako diskurtsoak entzutea. Atez atekoa, eroso dela, birziklatze tasa handiagotzen duela, eta bide publikoaren estetika hobetzen duela esan ez du ba? Eta bada beste detailtxo txiki-handi bat ere. Atez atekoaren defentsa horretan, “hiriburu askotan ondo funtzionatzen duen” sistema dela dio Landak, biztanleria handiko guneetan sistema bideraezina dela diotenen iritzia kontrajarriz. Argi hitz egin du. Entzungo al dute Gipuzkoan?

Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Luis Aranalde | Maialen Unanue | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai

### Joseba Larratxeren komikia



# Hilabeteko itxialdia egingo da Usurbilen, euskal preso eta iheslarien kaleratzea eskatzeko

**E**uskal preso eta iheslari ohiek hilabeteko dinamika abiatuko dute Usurbilen laster. Hilabeteko itxialdia egingo dute abenduaren 10etik urtarrilaren 8ra udalderri honetan. Modu batean edo bestean, gutxienez mila bat lagunek parte hartzea aurreikusten da.

Preso ohiez gain, herritarrek ere parte hartu ahalko dute, bakoitzak nahi edo ahal duen neurrian. Tarte horretan hainbat ekimen eta jarduera antolatuko dituzte Kaleragunea deituriko eremuan; hitzaldiak, mahai inguruak, kultur ekitaldiak... Hilabete osoan zehar, "Absentziaren mahaia" egongo da Kaleragunean. Mahai bat presoak adina aulki eta plater hutsekin. Espetxean daudenek utzitako hutsunea irudikatu



Duela gutxi iragarri dute ekimena. Abenduaren 10etik urtarrilaren 8ra Dema Plazan ipiniko duten karpa batean egingo dute itxialdia.

nahi dute ekintza sinboliko honekin.

Bestalde, presoan auziaz ekarpen zein iritziak jasotzeko denetarikoen eragileekin harreman nahi dute. Dinamika honen sustatzaileen esanetan, "presorik gabeko herria" irudi-

katzeko ordua heldu da. "Kalera, kalera! Bakea eta askatasuna irabaztera" aldarripean burutuko den datorren hilabeteko dinamikarekin, jauzi kualitatibo bat eman nahi dute, espetxeak presoak husteko existentzian. Euskal presoak lehen-

bailehen kaleratzeko beharra azpimarratu dute, "bakearen eta askatasunaren alde borrokatzen" jarrai dezaten. Eta helburu hau betetzeko, euskal gizartea ere kalera ateratzeko beharra nabarmendu dute.

## Informazio gehiago:

- [kalerakalera.eus](http://kalerakalera.eus)
- Facebook: [Kalera kalera](#)
- Twitter: [@kalera\\_kalera](#)

## Sortu birfundatzeko bigarren batzarra

Larunbat honetan, goizeko 10:00etan Potxoenean. Ponentzia eta zuzendaritza taldeak hautatuko dira, Usurbilgo Sortuk, abian den birfundazio prozesu honen baitan deitu duen bigarren saioan.

## Ika-Mika

# Independentziarako Bideak (eta II)

**B**igarren Bide hau ez lehorke aurrekoaren kontraesan, ez dio lehia egin nahi. Nire ustez, estrategia partekatua behar luke, bi bideetarako sinergiak bilduko litzukeena. Bi bideak ortzimuga berean jarri beharko liratezke epe motz, ertain eta luzean.

Bigarren bide honek, Euskal Herriko sustraietara bueltatzea esan nahi du, gure sustraiak berreskuratzea XXI. mendeko Euskal Herrira ekarri.

Era berean, garrantzitsua da, garai baten aldaketaren aurrean gaudela jabetzea. Gaur gaurkoz jendarte industrial batetatik Jendarte Berrira pasatzen ari gara, batzuk "jakintzarena" izendatu dutena. Jendarte berri honek aldaketa nabarmenak dakar-

tza bere baitan; teknologikoak, ekonomikoak, sozialak eta politikoak, non pertsonen pentsatzeko, lan egiteko eta bizitzeko moduetan aldaketa nabarmenak dakartzaten.

Aldaketa hauen eraginak guztioi eragiten digu; pertsonen, enpresei, antolakundeei, lurraldeei eta erakundeei. Bi alternatiba ditugu begi bistan; gertatzen denaren aurrean ez ikusiarena egin eta korrontearen baitan jarraitu, edo alderantziz, egoerari aurre hartu eta korrontear gure alde egin dezan eragin.

Gure sustraietara itzuliz, aipaturiko bide honek gai hauek kontuan hartu beharko litzuke:

1.- Euskal Herriak bere garaian izan zuen Kultur Eredu Matrilineala edo Matrifokala

berreskuratzea eta eguneratzea (ez nahastu matriarkatuarekin). Gattunk proiektuak Usurbilen psikosozialki Kultur Eredu Matrilinealarekin zerikusi handia duenaren hipotesia planteatzen dut.

Beste alde batetik, gaur egungo eredu patriarkala eredu kapitalistatik elikatzen da, gaur egun bizi ditugun patologia sozialak, horren lekuko.

2.- Kultur Eredu Matrilineal komunalarekin du lotura zuzena. Beraz, beharrezkoa da komunalaren baitan egituratzen zen eredu berreskuratzea eta eguneratzea.

3.- Erabakiak politikoki hartzeko garai batean izan genuen eredu berreskuratzea eta eguneratzea; gaur eguneko baina askoz ere demokratikoagoa zen

Erakunde Publikoaren baitan; Batzarrea.

4.- Auzolana berreskuratzea eta eguneratzea, kooperatiboki lan egiteko modu gisa eta komunalaren baitan egikaritzen zena.

Orain arte aipaturiko kontu teoriko guztiak herri edo eskualde mailan egikaritu daitezke. Adibidetzat, 2012ko martxoan egindako ikerketa izan daiteke. Ikerketa honek, urte batena, Usurbilen bizi garen 6.000 biztanlek nutrizionalki gure burua hornitu genezakeela agerian utzi zuen. Ikerketa horrek, usurbildarron elikagai beharrak 64 hektareako lurzoruarekin lortu zitekeela ebatzi zuen.

Bigarren bide hau Bizipoza gisa izendatu liteke.

**Gabriel Valin**

# 2017ko galdeketen olatura batzeko unea

Euskal Herriko beste hainbat udalerrri bezala, Usurbil ere erabakitze aroan murgiltzera doa. 2017ko maiatzeko erabakitzeko eskubidearen inguruko galdeketa antolatzen proposamena egin du Usurbilgo Gure Esku Dago taldeak. Herri-tarren laguntza ezinbestekoa izango denez, lehen batzarra hitzartu gaituzte, azaroaren 26an 12:00etan Potxoenean.



Azaroaren 26rako bilera irekia deitu dute. Eguerdiko 12:00etan elkartuko dira, Potxoenean.

**Erabakitzeko eskubidearen aldeko mugimendua berraktibatze-ko baliatu nahi zenukete datoren batzarra?**

**Xabier Alustiza:** Ibilbide luzeagoko mugimendu honetan, erabakitze aroa martxan jartzeko unea da. Olatu handi bat sortu da Euskal Herrian, herri askotan zehar egiten ari diren erabakitzeko eskubidearen inguruko galdeketeekin. Etxarri Aranatzek hasi zirenetik, leku askotan egin dira eta askotan egingo dira galdeketa 2017. urtean. Usurbilen ere iruditzen zaigu olatu horretara igo behar garela, ezin garela kanpoan geratu. Horretarako, epe jakin baterako, elkarte bat osatuko da.

**Herri galdeketa kudeatzea helburu izango duena.**

**X.A.:** Bai. Izen bat jarri beharko diogu, beste herrietan egin den antzera. Horretarako da bilerrako deialdi hau. Jendeak jakin dezala eskatuko diogula epe jakin baterako konpromisoa edo lana.

**2017ko maiatzean egin nahi da herri galdeketa. Hortik aurrerakoa lantzeke dago?**

**Julen Arteaga:** 2017an jakintzat

## GURE ESKU DAGO

**“Elkartea sortu nahi da, sinadura bilketa bat egin jendea ere kutsatzeko eta inplikatzeko langintza horretan”. Bilera deitu dute azaroaren 26an larunbata, 12:00etan Potxoenean**

ematen da herrian galdeketa egingo dela, baina jendearen laguntza beharko da. Ez bakarrik lan egiteko, baita ideia berriak ekarriko dituen jendea. Jendea animatzen dugu etortzera, ze lan egingo den ikustera. Bakoi-tzak ikusiko du ze mailatan parte hartu dezakeen.

**Olatz Leoz:** Ez dadila izan lau lagun arteko lan bat, baizik eta herri mailan talde batek osatu eta aurrera bultzaturikoa.

**X.A.:** Talde sustatzaile bat egongo da eta talde honek izango du antolakuntzaren ardura.

Aprobetxatu dezakegu beste herrietan izan duten esperientzia. Gure asmoa, besteen esperientziak baliatzea da eta horretan bidea erdi egin badugu. Badakigu zergatik eta nola sortu

behar den elkarte, baina ez genuen horrekin hasi nahi, jendearen parte hartzea izan arte.

**Haritz Zubiaur:** Elkarte sortu nahi da, sinadura bilketa bat egin jendea ere kutsatzeko eta inplikatzeko langintza horretan.

**Berriki erraustegiari buruz eginiko herri galdeketa, eredu gisa baliagarria izango da 2017ko galdeketarako?**

**H.Z.:** Onuragarria, jendeak egin duela botoa emateko ariketa, loteslea izan ez den galdeketa batean. Antolaketa mailan jendeak esperientzia bat badauka, protokoloak ere hor daude eta gauza asko aldeko daude. Baina lanean hasi behar dugu.

**O.L.:** Ez da oso desberdina izango, erraustegiari buruz egin den galdeketa-erako. Aurrerapen moduan hartu dezakegu herri galdeketa hori. Hor ere ikusi da zer lan egin den eta zer lan eskatuko duen beste herri galdeketa batek.

**X.A.:** Herri galdeketa honetan nabarmendu nahiko genukeen puntu bat zera da, lan talderako aurkitu bahi ditugun herritarrek ideologia anitzekoak izatea, ekarpen desberdinak jaso ahal

izateko asmoarekin. Denentzako lekua izatea nahiko genuke.

**Nola ikusten duzue galdeketen inguruan sortzen ari den mugimendua?**

**J.A.:** Ilusioz bizitzeko prozesua da. Badirudi ez garelako jabetzen herritarrek gauza asko egin ditzakegula. Usurbilgo galdeketa-ostean, ez da itzaliko den mugimendua izango. Katalunian ere hala hasi ziren, herri txiki batean eginiko galdeketa-ekin. Gero hiri handiagoetara joan zen.

**H.Z.:** Mugimendua osasuntsu dago. Ekitaldi masiboak hasierakoak izan ziren, baina bada jende bat ikuspegi luzea eman nahi diona eta nobedadeak etorriko dira hurrengo urteetan ere. Erakundeek bere espazioa dute baina herritarrek badute bere esparrua eta hori oso ondo islatu dezake mugimendu honek.

**X.A.:** Bidea egiten egingo dugu eta lortuko dugu. Inoiz ez dugu erabakitze aroa aukerarik izan eta badakigu erabakitze eskubidea eta gogoia dugula. Bidea eginez lortuko da, geldirik geratzen bagara ezer ez dugu lortuko.

**www.noaua.eus**  
USURBILGO ATARIA

**Josue Igeltseritza**  
606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza Orokorra  
693 059 392  
uraitz@uraitz.com USURBIL

**URDAINTZI**  
eraikuntzak  
649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
eraikuntzak-OBRAK-ERREFORMAK

# Banyeres de Mariolarentzat ere, Usurbil eredugarri

Usurbilgo hondakinen kudeaketa eredia ahoz aho dabil hemendik ehunka kilometrotara. Eta horren adierazgarri, tarteka, atez ateko bilketa sistema eta konpostatze egitasmoa ezagutzera datozen bisitariak ditugu. Azaroaren 11n Alacant aldetik, 7.000 herritar dituen Banyeres de Mariola udalerriko ordezkari bat izan genuen gure artean.

Hiri hondakinen kudeaketari buruzko hainbat hitzaldi eta jardunaldietan parte hartu izan du bertako Udalak, eta saioetan sarritan agertu izan da Usurbilen indarrean dugun bilketa sistema, esperientzia eredugarri gisa. Usurbilgo Udaleko ingurumen teknikari Ibon Goikoetxea, hemengo sistemaren berri ematen bitan entzuteko aukera ere izan dute.

Eta orain, zuzenean, bertatik bertara ezagutu nahi zuten Usurbilgo hiri hondakinak nola biltzen diren, nolako den geure egunerokoa gai honi dagokionean. Udalerrri honek duen azpiegitura sarea bisitatzear gain, udal teknikari eta gobernu taldeko ordezkari batzuk harrera egin eta behar beste azalpen eskaini zizkien aurreko ostiralean.

## “Edukiontzien sistema ez da eraginkorra”

Bilketa sistemaz interesa agertu zuten, haien udalerrian ere gaikako bilketa indartzeko apustua egin nahi baitute. 816 metroan, Alakanteko puntu-



Alacant-eko herriak 7.000 biztanle ditu. Usurbilen izan berri dira atez ateko esperientzia ezagutzen.

## BANYERES-EKO ALKATEA

**“Edukiontzien sistema uste dugu ez dela benetan eraginkorra. Usurbilen bezala, atez ateko bilketarekin emaitza oso onak izan ditzakegula uste dugu”**

rik altuenean kokatua dagoen herrian, egun edukiontzien sistema dute. Edukiontzi bana dute, papera eta kartoia, ontziak, beira, eta azkenik, organikoa eta erreusa nahasian jasotzeko. Zer edo zer egin beharrean aurkitzen dira, alkateak NOAUA!ri adierazi dienez. “Araudiak 2020. urterako organikoa, erreusetik berezita, gaika biltzeko sistema jarria behar dugula ohartarazten digu”, Josep Sempere i Castellóren esanetan.

Egoera honen aurrean, inguruetan dituzten udalerrri bat baino gehiagok egin dutena egin zezaketen, bosgarren edukiontzia jartzea alegia, baina beste bide bat jorratzea hobe-

tsi dute. “Edukiontzien sistema uste dugu ez dela benetan eraginkorra. Benetan kalitatezko eta ondo eginiko bilketa izan nahi badugu, ezin dugu bosgarren edukiontzia aldeko apustua egin. Gure inguruko herrietan edukiontziak hutsik egoten dira edo bertara edozer gauza botatzen dute, organikoa plastiko eta bestelako gaiekin nahastuta. Usurbilen bezala, atez ateko bilketarekin emaitza oso onak izan ditzakegula uste dugu”, adierazi dio NOAUA!ri, Banyeres de Mariola udalerriko alkateak.

Atez atekoa abiatzeko ezinbestekotzat jotzen dute, herritarrei zuzenduriko kontzientziazte eta informazio kanpainak antolatzea. Birziklatze tasa irauli nahi dute, ez soilik 2020rako araudiak behartzen dielako, baizik eta helburu nagusia, Semperearen esanetan, “ingurumena zaintzea baita. Gure herria natur parke baten atarian dago. Gure ingurunea zaintzeko betebeharrak dugu”.

## GuraSOSen manifestazioa azaroaren 26an

Erraustegiaren lizitazioa gelditzea, parte hartze prozesu bat zabaltzea eta gai honen inguruan adostasunera heltzeko garaiz gaudela aldarrikatzeko manifestazioa deitu du azaroaren 26rako Donostian GuraSOSek. Arratsaldeko 17:00etan abiatuko da, Amarako EuskoTreneko geltoki ondotik, Araba Parkea eta Mendeurren Plaza ingurutik. “Eman bidea Osasuna eta Adostasunari” aldarripean bideratuko da mobilizazioa. Gizarte osoari dei egiten diote, “bere ahotsa entzunarazi dezan”.

## Elkarretaratzea, larunbat honetan Lasarte-Orian

GuraSOSek Donostian antolatu duen manifestazioari babesa adierazi eta, beste behin, erraustegiaren aurka agertzeko elkarretaratzea deitu du Lasarte-Oriako Aire Garbia herri plataformak, larunbat honetarako, azaroak 19, 13:00ean Okendo plazan.



Azaroaren 26koa Amarako tren geltoki ondotik abiatuko da, 17:00etan. Argazkia: Lurdes Hueta.

**txirriStra**  
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontzeju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**BORDATXO**  
taberna

**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

Tallak 36-60

**INQUIETUD**  
JANTZI-DENDA

Nagusia 49, LASARTE-ORIA

# Azaroaren 25a, emakumeenganako indarkeria salatzeneko eguna

**M**atrakak Usurbilgo Talde Feministak, herri eragile gehiagorekin elkarlanean ekimenak deitu dituzte Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Egunerako, azaroaren 25erako alegia.

Oraingoan, batetik haurrek pairatzen duten indarkeria patriarkala salatuko dute. Bestalde, azaroaren 25a, euskal presoaren eskubideen aldeko hileroko azken ostiraleko mobilizazio egunarekin egokituko denez, Arantza Zulueta euskal presoaren egoera bidegabera ere salatuko da elkarretaratze bidez. Azken urtean erail dituzten emakumeak ere gogoan hartuko dituzte Matrakak, astebete barrurako deitu dituzten hitzorduon bidez:

## Azaroak 25, ostirala

■ 18:00 “Ez arros, ez urdin, jostailuak haurrentzat berdin” solasaldia Potxoenean.



Clara Wolframek hitzaldi bat emango du, Ixabel Agirresarobek “Errauskine” ipuinaren aldaera eskainiko du eta 20:00etan elkarretaratzea egingo dute Mikel Laboa plazan.

**AZAROAK 25 OSTIRALA**  
**“Hileroko azken ostiraleko mobilizazio egunarekin egokituko denez, Arantza Zulueta euskal presoaren egoera bidegabera ere salatuko da elkarretaratze bidez”**

■ Hizlaria: Clara Wolfram.  
 ■ Sarrera: Angela Carterren “Errauskine” ipuina moldatuta, Ixabel Agirresarobe herritar-

rraren eskutik.

■ Elkarlanean: Matrakak, Usurbilgo Udala eta Hitz Aho.

■ 20:00 Arantza Zulueta euskal presoak bizi duen egoera bidegabera salatzeneko elkarretaratzea Mikel Laboa plazan. Eguraldi txarra eginez gero, frontoian.

■ Elkarlanean: Matrakak eta Usurbilen Nahi Ditugu.

■ Arratsaldean zehar, “Matxismoak eraildako emakumeen urratsak” oroitzapen ekitaldia.

## “Ostatuetan Oinarrizko Lanak” enplegu programa

**H**oteletan eta beste ostatu turistiko batzuetan lan egin nahi duten Buruntzaldea-Beterriko langabetuentzako antolatu du Usurbilgo Udalak. Izen ematea zabalik izango da azaroaren 24ra arte, lanbide.euskadi.eus atarian.

Parte hartzeko ezinbestekoa izango da eskualdeko udalerriren batean erroldatua egotea eta enplegu planean parte hartzeko prestakuntza atala egoki gaitzea. Lehentasunez, emakume langabetuei, epe luzeko langabetuei, DBE onuradunei, eta 35 urtetik gorako (lehen enplegua) langabetuei zuzendua dago. Donostiako Cebanc-Cdean eskainiko den



Izen ematea azaroaren 24ra arte egongo da zabalik.

ikastaroak 300 orduko iraupena izango du eta azaroaren 30etik otsailaren 23ra luzatuko da. Amaieran, 1. mailako profesionaltasun ziurtagiria eskuratu ahalko da. Enplegu programa honi esker, 10 kontratu burutuko dira hotelen sektoreko

enpresetan.

### Argibide gehiagorako:

■ Usurbilgo Udalako Garapen eta Hezkuntza Saila, 943 371 951  
 ■ Cebanc-Cdea, 943 316 900  
 ■ Lasarte-Oriako Lanbide bulegoak, 943023805/943023814

## Urriaren beherantz, langabezia eta kontratazioa

Beheranzko bidean segitzen du langabezia tasak Usurbilen, Estatuko Enplegu Zerbitzuak kaleratu dituen azken datuen arabera. Urriaren 267 langabetu zenbatu zituzten udalerrri honetan, irailean baino 21 lagun gutxiago. Beherakada orokorra izan den arren, nabarmenagoa izan da gizonezkoen artean. 131tik 118ra jaitsi da langabetu kopurua gizonezkoen artean, hilabeteko tartean. 157tik 149ra emakumezkoen artean.

Usurbilen bezala, Buruntzaldean eta Gipuzkoan ere langabetu kopurua murriztu zen urriaren. Bailaran, irailean baino 140 langabetu gutxiago zenbatu zituen Estatuko Enplegu Zerbitzuak. Gipuzkoan, irailean baino 893 langabetu gutxiago.

### Lan kontratuak, aldi baterakoak

Halere, erregistratzen diren lan kontratu gehienek aldi baterako izaten segitzen dute. Usurbilgo kasuan, urriaren 302 kontratu erregistratu ziren, haietatik 284 aldi baterako. Eta oraingoan, emakume gehiagoren kontratuak erregistratu dira, 160 guztira. Gainerako 142 kontratuak gizonezkoenak izan dira. Halere, gizonezkoak baino emakumezko langabetu gehiago izaten segitzen du Usurbilek.

## Erakusketa Artzabalen

Maria Angeles Manterolaren lanak, txuri beltzean arkatzez egindakoak, pertsonaia ezagunen erretratuak eta karikatidak. Eta koloretan Pilar Herreroarenak, euskal mitologiaren inguruko pertsonaien irudiak, akrilikoz eginak.



# Kale giroa biziagotzen

**G**iro goibelak ez zuen eragotzi igandean, jendea plazara irtetea. Kale giroa biziagotu nahi zuten. Baita lortu ere. Hurbilago Elkarteko tabernariak antolatutako "Kalea Bizi" lehen azokak harrera bikaina izan du. Frontoian egokitu eta herriko trikitilariak girotu zuten gune gastronomikoan, jan edanik ez zen falta izan. Ibiltaria izango da "Kalea Bizi" egitasmoa. Hilero ospatuko da. Hurrengo hitzordua, abenduaren 11n Artzabalen.



## Saritu ugari

Bizi Kalea, gune gastronomikoan jan edana probatzeak saria zekarren. Txartelak erosi behar baitziren alde aurretik, ekimenaren amaieran ospatu zen zozketarako baliatu zituzten txartel zenbakiak. Eta aipaturikoa, kalea girotzen lagundu zuten herritarren artean sari mordo bat zuen Hurbilago Elkarteak. Zenbait saritu unean bertan agertu ziren. Gainerakoentzat, honatx, zenbaki sarituen zerrenda osoa:

■ Hurbilago Elkartearen 150 euroko erosketa balea: 101.  
 ■ 2 lagunentzako otordua Artzabalen: 512.  
 ■ Bordatxo tabernaren 2 urdaiazpiko zorro: 56.  
 ■ Arbela markako bi txakolin kaxa: 330.



Sari ugari banatu zituzten. Batzuk jaso zituzten, besteak jasotzeke daude. Azpian dituzue zenbaki sarituak.

■ Bi Lumagorri oilasko: 340.  
 ■ Labe Goxoko pasta kaxa: 28.  
 ■ Txapeldun tabernakoan 3 botila ardo ondu: 461.  
 ■ Cruzcampo garagardo kaxak: 533.  
 ■ Txiriboga tabernakoan Glorioso botila ardoa: 43.  
 ■ Labe Goxoko pasta kaxa: 57.

■ Txirrista tabernakoan Condemar markako bi botila ardo: 17.  
 ■ Arbela markako bi txakolin kaxa: 567.  
 ■ Saizar sagardo kaxa bat: 323.  
 ■ Arbela markako bi txakolin kaxa: 391.

■ Arbela markako bi txakolin kaxa: 449.  
 ■ Txapeldun tabernakoan 3 botila ardo ondu: 171.  
 ■ Antolatzaileekin harremanetan jartzeko bideok dituzue: [hurbilago@gmail.com](mailto:hurbilago@gmail.com)  
 678 085 387  
[hurbilago.com](http://hurbilago.com)



Azokara hurbildu eta Lumagorri etzeko bi oilasko tokatu zitzaizkion.



Arbela etzeko bi txakolin kaxa eraman zituen herritar honek.

# Euskara ikastea, inon baino errazago

U surbilen euskara doan ikasi daiteke eta bide horretan sakontzeko asmoa du Usurbilgo Udalak. “Aurtengo bideari eutsi nahi zaio diru-laguntzekin”, aditzera eman zuten Udaletik, Etumeta AEK euskaltegiko 2016-17 ikasturtea aurkezteko azaroaren 7an Potxoenean ospatu zen ekitaldian.

Une honetan, 29 ikasle ditu Etumeta AEK euskaltegiak. Honez gain, 19 lagun parte hartzen ari dira Mintzalagunen. “Eragin handia izan dezake herrian” zioten aurkezpenean, euskaltegiak, Udalak eta NOAUA!k elkarlanean abian jarritako mintzapraktikarako ekimenaz. Parte hartzeko gonbita luzatu zuten. Euskaraz ikasten ari direnek, bidelagunak behar dituzte eta. Egitasmoaz gain, berrikuntzarik ere bada aurtengoan; gurasoei zuzenduriko ikastaroa antolatu baitu euskaltegiak, Udarreki Ikastolarekin eta Usurbilgo Udalarekin elkarlanean. Aste honetan bertan abiatzekoa da.

## “Eskertzekoa da egiten duzuen ahalegina”

Ikastaro guztiok Udalak diruz laguntzen ditu, ikasleentzat doan izateraino. Euskaltegitik aprobetxatzeko moduko auke-



Une honetan, 29 ikasle ditu Etumeta AEK euskaltegiak. Honez gain, 19 lagun parte hartzen ari dira Mintzalagunen. 2016-17 ikasturtea aurkezteko ekitaldia egin zuten azaroaren 7an Potxoenean.

### ETUMETA AEK EUSKALTEGIA

**“Ikastaro guztiak Udalak diruz laguntzen ditu. Euskaltegitik aprobetxatzeko moduko aukera dela gogorarazten dute eta herritar oro animatzen dute euskara ikasi edo hobetzera”**

ra dela gogorarazten dute eta herritar oro animatzen dute euskara ikasi edo hobetzera. Eta ikasitakoa gero, praktikan jartzera, erabiltzera noski.

### Onuradun izateko

Baldintza batzuk bete behar

dira diru-laguntzon onuradunak izateko. Tartean, klaseen %80ko asistentzia egiaztatzea. Udaletik nabarmendu nahi izan dutenez, azken urteotan jaso dituzten eskaera guztietan bermatu da asistentzia maila hau eta pozgarria da. Udalak egun, ehuneko ehunean lagun du dezake euskara ikasten ari den ikaslea, beti ere 500 euroko mugarekin. Apustu honi eusteko asmoa agertu zuen Udalak Etumeta AEK-ren ikasturte aurkezpen honetan.

Eta ahal den neurrian indartzekoa. Behar berezi ekonomikoak dituztenentzako laguntza lerro bat ere badu Udalak egun. Baldintza zehatz batzuk

betetzen dituzten ikasleei matrikulazioa ordaintzeko dirua aurreratzeke aukera eskaintzen die. Ez dute euskaldundu nahi duen inork, oztopo ekonomikorik izaterik nahi. “Ez dugu diruagatik inor euskara ikasi ezinik geratzerik nahi”, azpimarratu zuten aurkezpen ekitaldian.

Euskalduntzen hasia den ikasle talde bat bertaratu zen Potxoeneko hitzordura. Azalpen guztiok adi entzuteaz gain, Udalaren laguntzeko prestutasuna, esker ona eta euskalduntze bidean aurrera jarraitzeko animu mezua jaso zuten. “Eskertzekoa da egiten duzuen ahalegina. Euskaraz bizitzeko hautua egiten dugunok behar dugu euskara ikasi eta erabiliko duen jendea izatea”, Xabier Arregi Usurbilgo Udaleko alkateak zioenez. “Ez zaudete bakarrik”, oroitarazten zien. Herria euskalduntzeko bidean, “ontzi berean goaz denok”.

### Etumeta AEK euskaltegiko 2016-17 ikasturtea

Ikastaroetako parte hartzea Ikasle kopurua guztira: 29. Ohiko ikastaroetan: 26. Autoikaskuntzan: 3. Mintzalagun egitasmoan: 19.

## Dirulaguntzak, egutegia eta argibideak

### Egutegia

- Ekainean: deialdia egiten da. Eskaerak aurkezteko 10 eguneko epea izaten da udal erregistroan.
- Uztailean: eskaerak jaso eta aztertzen ditu Udalak.
- Abuztuan: udal iragarki oho-lean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen dira diru-laguntzen ebazpenak.

Interesdunek, erreklamazioak aurkezteko 10 eguneko epea izaten dute.

■ Irailean: diru-laguntzak jasotzen dituzte eskatzaileek. %100eko laguntza jasotzeko aukera dute, 500 euroko mugarekin. Behar ekonomiko berezian egon eta baldintza zehatz batzuk betetzen dituztenei dirua aurreratu diezaieke Udalak.

### 2015-16 ikasturtean

■ 16.614 euro banatu zituen Udalak laguntzetan.

### Diruz laguntzen diren ikastaroak

■ Irailetik abuztura eginiko ikastaroak; euskaltegikoak, autoikaskuntza eta udako bar-netegiak.

### Euskararen ezagutza

**Usurbilen (2011)**  
Euskaldunak: %70.  
Ia euskaldunak: %17.  
Erdaldunak: %13.

### Argibide gehiago:

Potxoenean, Usurbilgo Udaleko Euskara Zerbitzuan  
943 371 999

# Herritarren ekarpenak, paperera orain

**K**ale Irekiak espazio publikoa berrantolatzeko Udalak antolatu duen parte hartze prozesua amaitu da oraingoz. Herritarrek eginiko ekarpenekin proposamen bat osatuko du teknikari taldeak, otsailean aurkeztuko dena. Etor-kizuneko Usurbil diseinatzeko lan-gundu duen ekimenaren balantzea egin digu Udalak lerrootan.

## Zer moduz amaitu duzue parte hartze prozesua?

**Jone Miner:** Ondo. Proposamenak egin dira. Orain falta dena da, teknikari taldeak proposatutako hori guztia aztertu eta forma ematen saiatzea. Otsailean jendeari aurkeztuko zaio proposamen teknikoak, herritarrek ikus dezaten haiek eginiko ekarpenak ere hor daudela. Proposamen horien artean lehentasunen arabera hautaketa bat egin beharko da.

**Xabier Arregi:** Orain arteko lanketa hau jaso eta ordenatu egingo da. Herritarrek etxean jasoko duten liburuxka batean bilduko dira, zein diren prozesu parte hartzaile honetan atara diren proposamen zehatzak. Hor proposamen horien zerrenda bat izango dugu, udal honi enkargu moduan emango zaiona. Udal honen aurrekontuek aukera ematen duten neurrian gauzatzen saiatuko gara. Ikuspegi zabal batetik eta modu orekatuan jokatu beharko da, auzoei ere tokia eginez eta haiei ere dagokien lehentasuna emanez.

## Hilabeteko prozesua izan da, lanketa ordea lehenagotik hasia zen.

**X.A.:** Aurreko legealdian hiria antolatzeko plan orokorra diseinatzeko hasi ginenean, leloak berak zioen "oraina da geroa", alegia orain ari garela erabakitzen etorkizuneko Usurbil nolakoa izango den. Egin den gogoetak osagai asko izan ditu. Usurbilen beharrak berrikusi dira. Aurrekinean jaso den diagnosi bat egin da. Baina etorkizuneko es-



67 herritarrek parte hartu dute zuzenean. Hurrekin eginiko lanketan, Udarregi Ikastolako 185 haurrek parte hartu dute. Aginagako Eskola Txikioek parte hartuko dute orain. Argazkia: Usurbilgo Udala.

### JONE MINER

**"Lehen saioak ahulxeagoak izan ziren. Baina gero ahalegin berezia egin dugu jendearengana iristen, eta azkenean jendeak erantzun du"**

pazio publikoa, mugikortasun eredia definitzeko lanketa bat egin nahi zen. Horretarako denbora hartu nahi genuen, hausnarnaketa herritarrekin partekatu. Hor kokatzen da "Kale Irekiak" prozesua. Usurbil egiten ari den gogoeta estrategiko horren emaitza izango da plan orokorra eta plan orokor horrekin batera sortuko diren albo emaitzak; esaterako, ibaiari buruzko lanketa. Prozesu honetarako, parte hartze aktiboaren formatua baliatu dugu. Egin diren saioetan, azalpenetatik baino gehiago egon da norbere ekarpenetatik. Maila abstraktuago batetik maila oso konkretura iritsi gara, oso aktuazio edo asmo konkretuak adierazteraino.

## Hurrek interesa agertu eta irudimentsu jokatu dute, ezta?

**J.M.:** Egia esan, egin zen dinamika oso aberasgarria izan zen haurrentzat, irakasleentzat. Gaira gerturatu, herriko gune desberdinetara ibilbideak egin eta aztertu, hobekuntza proposamenak egin, marrazki bidez adierazi, guztia mural batean jaso eta alkateari aurkeztu zioten.

**X.A.:** Oso interesgarria izan da. Askotan helduok oso baldintzatuak gaude gure aurreiritzi eta dugun ikuskera oso errota dago. Umeen begirada freskoa da, eta bide erakusle dira.

## Parte hartzearen kultura transmititzeko aproposa baita?

**X.A.:** Herri hezitzailearen planteamendua dago hor. Hurrek txikitatik ikasten badute parte hartzen, axola zaizkien gaietan zeresana izan eta haiek esandakoak aintzat hartzen ditugula, hori inbertsio bat da. Kultura hori erein eta landu behar da.

## Generoa, euskara edota ingurumenaren balioa txertatu nahi izan duzue plan honen diseinu lanetan.

**J.M.:** Erabat lotuak baitaude. Herritarrek hirigintzak eguneroko bizimoduan ze eragin duen konturatzen saiatu gara. Hirigintzaren bidez eguneroko bizitza erraztu, hobetu eta aberastea zen prozesu honen helburua.

**X.A.:** Oraingoan begiak ireki nahi izan ditugu ikusteko, bestelako planteamenduak eta antolaketa posible direla. Gauzak beste era batera eginez gero ari gara oinezkoiei, bizikletei, motorrik gabeko ibiltzeko moduei lehentasuna ematen. Ikuspegi hori landu egin behar da. Horrek eskatzen du, batetik, kultura edo ikuskera berri hori geureganatzea edota asimilatzea eta espazioen antolamenduan lanean ari garenek ere hori islatzen jakitea.

## 40.000 euro, lehen egitasmoentzat

"Kale Irekiak" espazio publikoa berrantolatzeko parte hartze prozesuan herritarrek eginiko ekarpenetako batzuk 2017an gauzatzeko apustua egingo du Usurbilgo Udalak. Horretarako, 40.000 euroko diru partida gorde du datorren urterako udal aurrekontuetan.


Honez gain, ez da aurrekontuotan isla izango duten herritar edota udal langileek eginiko ekarpen bakarra izango. Duela urtebete guztiokin landutako udal Gobernu Programarako bildutako proposamen eta iritziak ere, datozen eta hurrengo urteotako udal aurrekontuetan islada izango dute, Udaletik ohararazi dutenez.

## Inbertsioak

"Datorren urterako inbertsioei dagokienez, Etxebeste eta Hirutasuna kaleen urbanizazio lanak, hilerri berria handitzea, Oiardo kiroldegiko aireztapena egokitzea eta Txokoaldeko zubiaren legeztatze proiektua egitea izango dira inbertsio handiena eskatuko dutenak. Aurrekontuetan partida propiorik ez badute ere, Aginagako espaloien konponketa eta Kalezarko eskailerak beritzea ere udal baliabideekin egingo dira. Azkenik, Zumarteren eraberritzeko lanak ere 2017an definituko dira eta proiektu honek ere aparteko finantzaketa bideak izango ditu", Udaletik ohar bidez iragarri dutenez.

## Azaroaren 22an, bilera

Hurrengo urteko inbertsioak aurkeztu eta udal aurrekontuen prozesuari buruzko nondik norakoen berri azaldu nahi die Udalak herritarrei. Horretarako bilera deitu dute azaroaren 22rako, 18:00etan Potxoenean.





[Klik! batean](#)

## Amaiera dotorea

Mutiko zenean, pozik etortzen zela gure artera. Itzal handiko artistak bizi zirela bertan, ez zela noranahiko herria. Ruper Ordorikak antzekorik esan zuen aurreko igandean Sutegin eskaini zuen kontzertuan.

Honakoan baina, ohorea gurea izan da. Bere disko berriko kantuak primizian entzuteko aukera izan dugulako. Sutegiko sarrera denak agortu egin ziren. #Noauak20 Kulturaldia ixteko, nekez asmatuko genuke amaiera dotoreagorik.

Argazkia: Ion Markel

## 20. Korrika iragarri berri dute

**M**artxoaren 30ean abiatuko da Otxandiotik eta apirilaren 9an amaitu Iruñean, "Batzuk" aldarripean. Hautatu duten leloak, "hizkuntza, kultura eta mundu batzuk irudikatu nahi ditu". Bat eta zu hitzekin jolastu nahi izan dute oraingoan. "Hizkuntza, Kultura, Mundu 'Bat' sendotzeko bidean, 'Zuk' ere bat egin dezakezu, zeuretik, zeure hizkuntza-aberastasuna eta kultur aniztasun uni-bertsala bizi ditzazun: ikasiz, erabiliz, ahalbidetuz", antolatzaillearen esanetan.



Martxoaren 30ean abiatuko da Otxandiotik eta apirilaren 9an amaituko da Iruñean. Usurbildik ere igaroko da, baina eguna ez dute zehaztu oraindik.

Oraingoan sortzaileak omen-dukoditu. Abestia abenduaren 14an aurkeztuko dute. Usurbildik ere igaroko den 20. Korrika badator eta guztion

laguntza beharko da. Horretarako, 12 euroren truke Korrika Laguntzaileak izan gaitzke. "20. Korrikak jasoko duen dirua Euskal Herri osoko bere

euskaltegiak laguntzeko erabiliko du AEK-k", berri eman dutenez.

Informazio gehiagorako: korrika.eus

## Igandean, Txerri Festa Zubietan

**I**az bezala, Zubieta Pilota Elkarteak bilgunea laguntzeko Txerri Festa antolatu du azaroaren 20rako. Txerria ardatz izango duen egun honetan, artisauen postuak jarriko dituzte, edota Joko Garbi partidak jokatu dira. Bazkaria ere izango da. Txartelak aurrez eskuratu beharko dira Alamandegina, azaroaren 17a baino lehen.

### Azaroak 20, igandea

Txerri Festa Zubietan, Zubieta Pilota Elkartearen alde:

- Goizean zehar, postuak: gazta egilea, pilota egilea, larritz eginiko lanak, sagardo egitea, ukenduak, ogia, beira...
- Bertsolariak: Lizaso eta Egaña.
- 10:00 Txerri-hilketa ondorengo lanen erakusketa.
- 10:15 Txistorra, odolki eta



Goiz partean azoka eta txerri-hilketaren ondorengo erakusketa egingo da.

saltxitxen ekoizpena. Ondoren, pintxoak salduko dira.

■ 12:00 Gaztetxoaren arteko Joko Garbiko partidak frontoian.

■ 14:00 Bazkaria frontoian. Menua: Eusko Label Tolosako babarrunak eta Ibarlur Ibarako piparrak, Lumago-

rri oilaskoak, gazta, kafea eta kopa. Txartelak aurrez salgai Alamandegina, azaroaren 17ra arte: helduenak 20 eurotan, 14 urtera arteko haurrenak 10 eurotan.

■ Bazkalostean, erromeria.  
■ Antolatzaillea: Zubieta Pilota Elkarte.



### Zumartekoak, Musikalean

Santa Zezili Eguneko ospakizunen harira, Musikalean ekimena antolatu du Zumarte Musika Eskolak, azaroaren 24rako:

■ 18:00 Kalejira Zumarte Musika Eskolatik: Trikitixa-pandero taldea, Musika Txokoko eta abesbatzako ikasleekin lagunduta.

■ 19:00 Zumarte Musika Eskolako talde instrumentalaren kontzertua Sutegiko auditorioan. Sarrera doan.

■ Antolatzaillea: Zumarte Musika Eskola.

### Yolanda Arrietaren ipuin kontaketa

Asteazken honetan bezala, datorrenean ere, Yolanda Arrieta Aginagako ludotekan izango da, San Praixku Guraso Elkarteak antolaturiko ekitaldian. Azaroaren 23an, 18:15ean hasita, haur eta gurasoei zuzenduriko saioa eskainiko du.

### Odol Emaileen Egunean izena emateko garaia

Ohi bezala, herriko odol emaleek abenduaren 8an ospatuko dute haien eguna. Atxega Jauregian egingo duten bazkari baten bueltan izango da. Otordurako izena aurrez eman beharko da, telefono zenbakiotako batera deituta:

- Maite: 943 366 040
- Mari Sol: 943 372 487
- Agustina: 943 363 102

# Gazteraiki topaketan eta Usurbilgo gazte eragileen diagnosi aurkezpena

**H**erriko gazte eragileak diagnosi batean ertratatu ditu Usurbilgo Ernai gazte erakundeak. Azkenekoz antzeko lanketa bat 2011n egin zuen gazte mugimenduak, gazteen problematika jorratzen zuen orduko hark. Oraingoan, Euskal Herriko beste hainbat txokoetan egin duten bezala, Usurbilen ere “gazte mugimenduaren errealitatea ezagutu eta horren arabera eragin esparruak detektatu” nahi zituen Ernai.

Diagnosia, gazte eragile hainbaten ekarpenekin hornitu dute; Matrakak, Usurbilgo Gaztetxeko asanblada, jai batzordeak, Ziortza eta Udajolaseko begiraleak, Orbeldi Dantz Taldea, musika taldeak... “Herri mailan diagnosi bat egiteak dituen zailtasunak onartuta, errealitatea ahalik eta hobekien islatzen saiatu gara eta honen emaitza txosten batean bildu dugu”, berri eman diote NOAUA!ri.

## Ostiral honetan, emaitzen aurkezpena Potxoenean

Herri eragile ezberdinekin bildu ziren uda partean diagnosi hau osatzeko. Ernaioak egunotan berri biltzekoak ziren, diagnosiko emaitzak aurkeztu eta txostena entregatzeko. Eginitako lanketa herriari ere aurkeztu nahi diote, ostiral honetan, azaroaren 18an, 18:00etan Potxoenean deitu duten hitzorduan. “Bertan azalduko ditugu diagnosiaren nondik norako guztiak, datuak eta ondorioak, abenduko Gazteraiki topaketa nondik datorren, zergatik egingo den, zer landuko den bertan”, azaldu diote NOAUA!ri Usurbilgo Ernaiko kideek.

## 18 proiektu garatu dira

Diagnosia aurkeztuta hain



Usurbilgo Ernaik gazteen inguruko diagnosi bat osatu du.

## AZAROAK 18, POTXOENEAN

**“Bertan azalduko ditugu diagnosiaren nondik norako guztiak, datuak eta ondorioak”.  
18:00etan batuko dira.**

zuzen, ez baita amaituko azken hilabeteotan burutu duten lanketa. Justu kontrakoa. Paperean bildu duten edukia, garatu nahi duten lanketaren abiapuntua baino ez da. Ostiraleko ekitaldiaren ostean, Usurbilgo gazte eragileak abenduaren 9tik 11ra Barañainen (Nafarroa) antolatu diren Gazteraiki topaketetan parte hartzerantz animatu nahi dituzte. Alternatibak eraikitzearen inguruko dinamika da honakoa. Urtebeteko bidea osatu duena. Añorgako Firestonen aurkeztu ostean, martxoa hasieran Udarreri Ikastolako erdiko aretoan Euskal Herriko txoko ezberdinetatik etorritako 300 bat gazte batu zituen asanbladan. Saio hauetan, “gazteen beharrak identifikatu eta hauen alternatibak sortzerantz bidean ildo ezberdinak zehaztu (sorkuntza, hezkuntza, euskara, kirola, jai-eremuak, feminismoa...) eta etorkizun hurbilera begira oin-gida moduan baliatuko diren proiektu ezberdinak garatu

dira”, berri eman diote Usurbilgo Ernaitik NOAUA!ri.

Usurbila etorri zen jendea, ildo horien interesen arabera eta asanbladetan biltzen aritu da ordutik. Prozesu horren emaitza dira, Barañainen aurkeztu eta eztabaidatuko diren 18 proiektu, baita Usurbilen Ernaik osatu berri duen diagnosia ere.

## Topaketa, gero tokiko eremutik jarduteko

Aipatu moduan, Ernaik Barañaingo topaketetan parte hartzerantz animatu nahi dituzte gazteak. Jada sarean irakur daitezkeen (gazteokeraikiten.topatu.eus) 18 proiektuak, 12 lan ildo ezberdinetan sailkatuak daude; autodefentsa, euskara, etxebizitza, elikadura burujabetza, lanak, jai eremuak, hezkuntza...

## 12 lan ildo

Gazteraiki topaketetara joan asmo duenak, topaketen web orrian sartu (gazteokeraikiten.topatu.eus) eta aipaturiko 12 lan ildo hauetako batean izena eman beharko du. Honez gain, aurrez 25 euroko bonoa eskuratu beharko du. Irrati tabernan izango dira salgai, azaroaren 30era arte.

Barañainen hiru egunez norbe-

rak hautatutako lan ildo horri loturiko tailer, hitzaldi edota mahai inguruetan parte hartzeko aukera izango du. Ikasteaz gain, jendea ezagutu eta ondo pasatzeko gunea ere izango da Gazteraiki. Kontzertuak eta aisialdiko ekitaldi gehiago iragarri dituzte.

## Alternatiba errealak

Topaketen ostean, gazteak sorrerara itzultzean, “proiektu hauek aitzakiaz hartuta Euskal Herriko txoko ezberdinetako gazte mugimendu ezberdinek oin-gida moduan hartuz bakoitzak bere lan esparruan alternatiba errealak martxan jartzen hastea” da helburua. Alegia, Gazteraiki topaketetan jasotakoa, norberak bere herriari ekarri, eta bestelako eredu alternatibo batean sakontzeko pauso errealak ematen segitzea da asmoa.

■ Informazio gehiago: gazteokeraikiten.topatu.eus

## Gazte Eguna, azaroaren 26an Usurbilen

Egun osoko egitaraua osatu dute:

### Azaroak 26, larunbata

- 08:30 Auzolanerako deialdia muntaketarako.
- 10:00 Mahai ingurua: “Gazte perspektiba: Usurbilgo errealitatea ezagutzen”.
- 11:30 Gazte Olinpiadak. Oharra: frontoian elkartuko gara. Izena eman betiko tabernetan.
- 19:00 Elektro Txufila, elektrotzaranga.
- 21:00 Afaria. Sarrerak 12 eurotan, betiko tabernetan salgai.
- 00:00 Kontzertuak: Odolaren Mintzoa, Skasti eta DJ Seymar & XBR.

# 'Udarregiren omenez' maiatzean plazaratu genuen gehigarri bereziak Tokikom Saria 2016 jaso du

Astelehenean Tokikom jardunaldiak egin ziren Arrasaten. Komunikazio lokala esparru globalean izenburupean, tokiko komunikabideen jardueraz eta balioaz hausnartzeko xedez. 2016an egindako lanik onenak saritzeko astia ere izan zuten. Eduki onenaren saria NOAUA!rentzat izan zen.

Jardunaldien baitan, 150 lagun elkartu ziren Arrasateko Garaia gunean. Tartean, Tokikomeko kide diren hedabideetako ordezkariak. Hantxe izan zen NOAUA! ere.

Arlo instituzionalean, Urko Aristi Tokikomeko lehendakaria, Maria Ubarretxena Arrasateko alkatea, Mikel Irizar Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntz Berdintasuneko zuzendaria eta Jokin Azkue Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendariak hartu zuten parte.



Mikel Irizar Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntz Berdintasuneko zuzendariaren eskutik jaso genuen saria. Argazkia: Goiena.

## Sari banaketa

Tokiko komunikabideek 2016an egindako lanik onenak saritzeko aukera profitatu zuten. Portadarik onenaren saria Hiruka astekariaren Txonbo

egin-ek jaso zuen; ikus-entzunezkorik onena, Goienaren Barruak astintzen dokumentalak; eta aipamen berezia Baleikereren Tapa Pala arraun denboraldiko bideo sortarentzat izan zen.

Edukirik onenaren saria, aldiz, NOAUA! astekariarentzat izan zen, maiatzean Udarregiren omenez plazaratu genuen gehigarri bereziarengatik. Eskerrik asko!

## Edukirik onenaren saria, NOAUA!rentzat

"Herriko efemeride baten kontakizunetik abiatuta, duela 50 urteko euskal kultur gintzaren argazki panoramiko ezin osatuagoa eskaintzen du. Garaiko artea, bertsolaritza, Ez Dok Amairu eta beste hainbat elementu gogora ekarri", honela argudiatu zuen epaimahaiak NOAUA!ri emandako saria. "Azpimarratzekoa da gainera, Rikardo Arregik egindako hitzaldiaren transkripzioa, duen balio historiko zein izaera iraultzaileagatik. Gehigarria bera eta material grafikoa dira azpimarratzekoak.

Horregatik bada, edukirik onenaren saria Usurbilgo NOAUA! astekariak 2016ko maiatzean argitaratutako 'Udarregiren omenez' gehiga-



Arturo Delgadoren argazkietatik abiatuta, duela 50 urteko euskal kultur gintza irudikatu genuen 657. aldizkariko gehigarri berezian. Maiatza-ren 13ko NOAUA! astekarian plazaratu genuen lan hori da saritu dutena.

ri bereziarentzat da".

Toki komunikabideetan egiten den lana, sarritan tokian tokiko esparruan baino ez da ezagutzen. Horregatik, tokian

tokiko kazetaritza lanak publiko zabalarri ezagutarazteko asmoz, Tokikom Sariak antolatu ditu aurten lehenengoz Tokikomek, tokiko komuni-

kabideen bateraguneak.

## 104 lanen artean

Guztira 104 lan aurkeztu dira sariketa honetara, eta "epaimahaiak lanak izan ditu benetan onenak aukeratzeko", idazkari lanak egin dituen Joxe Rojasek aditzera eman duenez. EHUko irakasle Alazne Aiestaranek, HUHEZIKo Goio Aranak eta ikus-entzunezkoetan aditua den Gaizka Arangurenak hartu dute lan guztiak aztertu eta onenak aukeratzeko ardura. Joxe Rojasek azaldu duenez "bi ezusteko handi izan ditugu: aurkeztutako lanen kopurua, eta lan horien artean ikusi dugun maila altua, eta ideia fresko eta berritzaileen kopurua".





Imanol Ubeda

Eguneroko jardunean, zaila izaten da aktualitatetik aldentzea. Azken ordukoei eta agendari lotuta bizi gara. Gure aje handietakoa da. Maiatzean ordea, bestelako erreportaje bat lantzeko aukera izan genuen. Urte hasieran, NOAUA!ko bazkideen artean egin ohi dugun zozketa batean, sagardotegira joateko oparia egokitu zitzaion **Iñaki Almandoz**i. Sari bila etorri eta **Joxe Txikiren** inguruko hainbat kontu zituela aitortu zigun. Hor hasi zen erreportaje sarituaren ibilbidea. Ikusiko duzuen moduan, aipamen honek kulpante asko ditu.

### Argazkiak

**Iñaki Almandoz** NOAUA!ko bazkideak eman zigun erreportajerako baliatu genituen argazkien berri. Bere bitartez iritsi ginen **Kutxa Fototek**araino. Bertan dira gure lan saritua ilustratzeko erabili genituen argazki zoragarriak, **Arturo Delgado** dok eginak.

### Herritarrak iruditan

**Almandozekin** batera, **Maria Angeles Arruti**, **Eukene Kamino** eta **Joxan Artzeren** bitartez identifikatu genituen argazkietan ziren herritar batzuk.

### Bertsolari ezezaguna

Bertsolarien argazkian, **Xalbador**, **Lazkao Txiki**, **Basarri** eta **Uztapide** berehala identifikatu genituen. Baina haiekin batera zegoen bertsolaria ez genuen ezagutzen. **Josu Goikoetxe**ari emailaz galdetu eta berak **Mugartegiren** traza hartu zion. Handik gutxira, **Joxan Artze** berak baieztatu zigun izendatzeko genuen bertsolaria **Mugartegi** bizkaitar bertsolaria zela.

## Aipamen honek kulpante asko ditu



Arturo Delgadoen argazkiak izan ziren gure lanaren abiapuntu. 657. zenbakiarekin batera plazaratu genuen gehigarri saritua. QR bidez eskuratu dezakezue.

### TALDE-LANA

**“Gurea talde-lana da. Tokikom Saria orrialde hau sinatzen duenak jaso zuen arren, meritua jende askorena da. Bistan denez”**

### Inauguraziotik haratago

Ez zen pista bakarra izan. Are gehiago: **Joxan Artzeren** azalpenei esker konturatu ginen Udarregiren omenezko kultur aste hark izan zuen garrantziaz.

Eskuorri bat ere atera zutela eta Udaletxean egongo zela jasoa. Agiri horren peskizan, **Marian Altuna** udal artxiboko arduradunarengana hurbildu ginen. Diptikorik ez Udaletxean, baina datu inportante bat eman zigun: Udarregiren omenezko ekitaldiak egiteko, Udalak 2.018 pezetako laguntza eman zuela.

Diptikoarekin tematu eta **Lazkao**ko **Beneditarren Artxiboraino** hurbildu ginen arratsalde batean. Hitzordua eskatu gabe azaldu ginen. Bertako langileak adeitsu hartu gintuen hala ere. Esku-orririk ez baina orduko **Zeruko Argian**

agertu zen albistea igorri zigun handik gutxira. Eta artikuluan eskuorririk ez baina kartela ageri zen. Bederatzi puntuko bertso neurriari keinu egiten zion kartelak, eta Udarregiren omenezko ekitaldiak iragartzen zituen: *antzerki sariketak, abesti txapelketak, bertsolari bilera, umeen idaz txapelketa...*

### Eskulturaren adiera

Arturo Delgadoen beste argazki batean, **Gaur** taldeko **Jorge Oteiza**, **Jose Antonio Sistiaga** eta **Remigio Mendiburu** (Udarregiren eskulturaren egilea bera) agertzen ziren.

Eskultura hortxe izan da 50 urtez. Baina zein ezaugarri artistiko zituen? Zer irudikatu nahi ote du? **Ismael Manterola Berriako** arte kritikariarengana jo genuen, iritzi eske. Hari esker jakin genuen Foru Aldundiak **Remigio Mendibururen** lan bilduma katalogatu berri zuela. **Xabier Saenz de Gorbea** aditua aritu zela horretan, eta onena **Koldo Mitxelena Kulturgunera** jotzea izango zela aipatu zigun Manterolak. **Frantxis Lopez KMko zuzendariak** abegikortasun handiz jokatu zuen NOAUA!rekin. Katalogoa

konsultatzeko moduan ez bazen ere, Udarregiren omenezko eskulturaren fitxa irakurtzeko aukera eskaini zigun. Hantxe zetorren eskulturaren adiera: Denboraren iragaitearen historia islatzen du Mendibururen artelanak.

Eskulturaren inguruan, datu polita eman zigun **Joxan Artzek**: eskulturaren ideia Mendibururena izango zen. Baina eskulturaren fundizio lana **Xanti Zumetak** egin zuen **Luzuriaga**nean. **Usoa Zumetak** baieztatu zigun gero datua.

### Omenduaren ingurukoak

Udarregi da erreportajearen beste gakoetako bat. **Antonio Zavalaren Auspoa** bilduman, harribitxi asko dago. **Udarregi bertsolaria** (1966) liburitik hartu genituen **Artikula**undi baserriko bertsolariaren datu biografikoak, eta hainbat bertso ere. Tartean, **Udarregi Pello Errotari** botatako **Gure kolejiyuak**, **sagardotegiyak** izenekoak.

### Hitzaldi gogoangarria

Kultur astearen azken egunean inauguratu zen eskultura. 1966ko maiatzaren 22an, hain juxtu. Bazkalostean, **Rikardo Arregi** andoaindarrak hartu zuen hitza. Euskal gazteen izenean, hitzaldi gogoangarria eskaini zuen. Audioa grabatua izan zen eta **Aiurri** aldizkariaren web orrian topatu genuen. Audioa paperera pasa ahala konturatu ginen zer nolako dimentsioa zuen bere hitzaldiak eta zer nolako ausardia izan zuen. Ez ahaztu 1966an adierazpen politiko oro debekatuta zegoela. Eta **Arregirena**, ezbairik gabe, karga politiko handiko diskurtsoa izan zen.


*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

# USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL



ARRANDEGIA  
**PELLO**

PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL



# 48 herritar, Behobia-Donostian

**E**txeko ordezkari zaba-  
la izan dugu aurten ere,  
52. Behobia-Donostia  
proban. Gutxienez 48 herrita-  
rrek parte hartu zuten igande-  
ko kirol proba ezagunean. Bi-  
latzailean, Usurbil, Zubieta eta  
Aginaga hitzak sartuta aurkitu  
dugun herritarren zerrenda  
duzue segidan. Behin behine-  
ko sailkapena da. Erreklama-  
zioak aurkezteko epea zabaldu  
dute antolatzaileek, azaroaren  
22ra arte. Behin betiko sail-  
kapena abenduan argitaratuko  
dute. Informazio gehiago:  
behobia-sansebastian.com

## Usurbildarren denborak

34-Iñaki Gericia Juan 01:07:56  
227-Iñaki Añorga Unanue 01:14:28  
451-Eneko Portu Irasuegi 01:17:29  
695-Ibon Beristain Atxega 01:19:17  
792-Jon Tapia Lizarraga 01:19:46  
1418-Rosa Uribe Navarro 01:23:39  
2147-Tito Izaguirre Godineau 01:26:18  
2796-Xabier Izeta Aramendi 01:28:15  
3203-Jose Manuel Iñarra 01:29:12  
3708-Alfonso Lopez Garcia 01:30:17  
3829-Darwin Morales Guevara 01:30:37  
4588-Jokin Zubiaur Blasco 01:32:20  
4624-Arturo Rojas Pedrini 01:32:25



Sailkapeneko emaitzak behobia-sansebastian.com web orritik hartu ditugu.

4859-Aitor Jauregi Urdanpilleta 01:32:54  
5391-Ion Portu Irasuegi 01:33:55  
5913-Josu Vazquez Lizarralde 01:34:57  
5916-Pello Sasiain Martinez 01:34:57  
7373-Iñaki Etxeberria 01:37:33  
8036-Jose Manuel Garcia 01:38:30  
9594-Joxemari Portu Azpiroz 01:40:53  
9775-Joseba Bengoetxea 01:41:08  
9959-Igor Pagola Iparragirre 01:41:28  
10389-Iñigo Alkorta Etxeberria 01:42:11  
11027-Ander Jauregi 01:43:09  
11475-Imanol Almandoz 01:43:50  
12612-Jon Guembe Urta 01:45:41  
12865-Francisco Javier Rodriguez 01:46:07  
12923-Salvatore Arruti 01:46:12  
12954-Iker Corral Lizarraga 01:46:16  
14287-Eneritz Agirre 01:48:30  
14322-Manex Torrealdai 01:48:34  
14326-Garazi Lizaso Manterola 01:48:34  
14541-Julen Lazkano Iturrioz 01:48:58  
15376-Oinatz Iparragirre 01:50:15  
15552-Juan Galardi Mendiluce 01:50:37  
16027-Irati Izagirre Kastresana 01:51:27  
16096-Juan Carlos Perez 01:51:35  
17283-Luis Garcia Fernandez 01:53:42  
17331-Iosu Mendizabal Borda 01:53:48  
18339-Mikel Ibarreta Borda 01:55:49  
18407-Pablo Roura Martinez 01:55:58  
18411-Jon Olasagasti Cencillo 01:55:59  
18516-Sergio Montes Guerra 01:56:14  
20394-Borja Carramiñana 02:00:44  
21057-Gurutze Sierra Moron 02:03:02  
21277-Gaizka Zumeta 02:03:45  
21327-Aitor Pagola Arizmendi 02:03:57  
22077-Alfonso Perez 02:07:18

## Gazteak

20-Andoni Rodriguez Martinez 0:16:25

## “Beste urte bat Zuberoan gozatuaz”



“Inor ez gaude ziur aurtengo urtea zenbatgarrena izan den, gutxienez badira 15 urte elkar-  
tzen garelako sagardo afari baten inguruan. Kanpoan hotza egiten bazuen ere, Urdiñarbeko areto nagusian giro bero beroa izan genuen. Aurten inoiz bai-

no jende gehiago elkartu gara. 160 izan ziren Urdiñarbe eta inguruko herrietatik etorritakoak eta 10 usurbildar joan ginenak. Bi herrien arteko lotura hau sortzen lagundu zuen Dominika Agergarairi omenaldi sentikorra eskaini genion,

bertan dantzari, bertsolari zein musikariek parte hartuaz. Hurrengo urtean ere ziur gaude Usurbil eta Urdiñarbek topo egingo dutela sagardo eta festa artean”. Lontxo Zubiriak igorri digu kronika eta argazkia.

## Endika Abril finala, bigarren atzeratua

Berriz ere euriagatik bertan behera utzi behar izan zuten azaroaren 13an jokatzeko zen Endika Abril Errebote Txapelketako finala. Larunbat honetarako iragarri dute, azken neurketa, Villabonan. Zubietarrek parte hartuko dute. Donibane Lohitzuneko Luzaz Gazte taldekoak izango dituzte aurkari.

## Usurbil F.T.ren denboraldiko aurkezpena

2016-17 denboraldirako osatu dituzten futbol taldeak aurkeztuko ditu Usurbil F.T.-k igande honetarako antolatatu duen jaialdian:

### Azaroak 20, igandea

■ 10:30 Haurrekin jolasak Mikel Laboa plazan.

■ 12:15 Usurbil F.T.-ko taldeen denboraldiko aurkezpeneko argazkiak aterako dira Mikel Laboa plazan.

■ Ondoren, luntxa Txiriboga tabernaren eskutik.

Antolatzailea: Usurbil F.T.

## Argazki lehiaketa Santuenean

Santuenea Kultur Elkar-  
teak antolatu du ekimena. “Udazkena” da parte hartu nahi dutenentzako hautatu duten gaia. 4-14 urte arteko haur eta gaztetxoei zuzendua dago txapelketa. Lanak, azaroaren 15etik 30era jasoko dituzte antolatzaileek. Informazio gehiago, Santuenea Kultur Elkarteko egoitzan jaso daiteke.

## 1952ko kinto bazkaria

Saizar jatetxean egingo dute kinto bazkaria. Izena emateko deitu alde aurretik, azaroaren 22a baino lehen, 943 361 380 telefono zenbakira. “Animatu!”, luzatu dute gonbita.

# Hemen da, mendizaleen astea



Azaroaren 26an larunbata, Usurbilgo inguruetara irteera. Ondoren bazkaria egingo dute Patri jatetxean. Izen ematea, Sutegin antolatut diren ekitaldietan antolatzaileek jarriko duten mahaian.

Usurbildar mendizaleak protagonista izango dituen proiektzioa, autobabesari buruzko hitzaldi interesgarria, irteera herritik barrena eta bazkaria Patrin. Segidan duzue Andatza M.K.T.-k datorren Mendi Asterako osatu duten egitaraua.

Gogoan izan bestalde, abendurako eta urtarrilerako ere irteera bana antolatu dituztela eta 2017rako txangoen egitaraua herritarren ekarpenekin osatu nahi luketela. Proposamenak ostegunero 19:00etan Andatza M.K.T.ren egoitzara helarazi, bertako postontzian utzi edo andatza@hotmail.com helbidera bidali daitezke:

## Mendizaleen urte amaiera

### Azaroak 23, asteazkena

■ 19:30 Mendi Astea: "Andatzakoak Ordesako Monte Perdido" proiektzioa Sutegiko auditorioan.

■ "2016ko irailaren 9tik 11ra, 40 mendizaleek Ordesara egindako irteeraren ikusentzunezkoa ikusteko aukera izango dugu. Lehenengo egunean, Senda de los Cazadores, Mirador de Carcillarruego, Faja de Pelai eta Soasoko zirkotik Gorizeko aterpera (2.200 m) iritsi ginen. Hurrengo egunean, Gorizeko aterpetik abiatuta, laku izoztutik pasa ondoren Monte Perdido gailurra (3.355 m) egin genuen 40 mendizaleok.

Azkeneko txangoan Carriatatik Faja Racunera eta Cotatuero zirkora abiatu zen talde bat eta Salaronseko klabinetako igoera ezagutzeko bidea hartu zuen beste taldeak".

### Azaroak 25, ostirala

■ 19:30 Mendi Astea: "Autobabesari mendi jardueretan" hitzaldia Sutegiko auditorioan.

■ Hizlaria: Mikel Nogues, Segurtasun eta Larrialdi Kudeaketan Graduatu. DYAKo Erreskate Arduraduna.

■ Zehaztasunak: "2015. urtean, 391 mendi-istripu gertatu ziren Euskadiko mendietan. Mendi-istripuak ekiditeko, baita istripu hauek gertatzen direnean hauen kalteak murrizteko ere, ezinbestekoa da jardueraren plangintza egoki bat egitea eta larrialdi baten aurrean nola jokatu behar den jakitea. Hitzaldi honetan, hortaz, mendi jarduera bat era seguruan egiteko beharrezkoa den plangintzaren eta larrialdi egoera baten aurrean izan behar dugun jokabidearen inguruan hitz egingo da".

Sarrera: doan.

### Azaroak 26, larunbata:

#### Mendi Astearen amaiera

■ 08:00 Irteera Usurbilgo inguruetara frontoi atzetik.

Ondoren, bazkaria Patri jatetxean. Izen ematea, Sutegin antolatut diren ekitaldietan antolatzaileek jarriko duten

mahaian. 2017ko federatu txartelak berritzeko aukera baita bertan.

### Abenduak 11, igandea

■ Mendi irteera: Artikutzako trenbide zaharraren ibilbidea.

Informazio gehiago: andatza.com

Antolatzailea: Andatza M.K.T.

## Pagazpe, Gipuzkoako txapelketa



Aurreko asteburuan Gipuzkoako eskuzko final gehienak jokatu ziren.

Ohorezko mailako finalean Santxo-Gorrotxategi bikoteak 22-16 irabazi zion Hernaniko Ojuel-Arrieta bikoteari.

Eskuz binaka nagusien 2. mailako finalean, Exposito eta Aranguren nagusitu ziren. 1. Mailarako igoera zein postutan igotzea ere jokoan zen.

Exposito-Aranguren 22

Loidi-Santxex 9 (Astigarraga).

### Azaroak 19, Usurbil 16:30h

Eskuz banaka nagusiak:

Quina (Pagazpe) - Tolosa

## Futbola Haranen

### Azaroak 19, larunbata

■ 09:30 Alebin mutilak:

Udarregi 6A-Urnieta 5B

■ 09:30 Alebin mutilak:

Udarregi 5B-Urnieta 6B

■ 10:45 Infantil mutilak:

Usurbil-Idiazabal B

■ 16:00 Erregional mutilak:

Usurbil F.T.-Asoleus C.F.

■ 18:00 Jubenil mutilak:

Usurbil F.T.-Urnieta K.E. "A"

## Eskubaloit partidak

### Azaroak 19, larunbata

■ 10:00 Alebin neskek, Buruntzaldea: Udarregi 6A-Udarregi 5B

■ 10:00 Alebin neskek, Buruntzaldea: Udarregi 5A-Udarregi 6B

■ 11:00 Infantil neskek, Gipuzkoako Txapelketa:

Udarregi A Usurbil-Bidasoa A

■ 12:15 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi A Usurbil-H. Txarriduna Elgoibar

■ 15:45 Jubenil mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Urduliz

■ 17:30 Kadete mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Urduliz

■ 19:30 Senior mutilak, 1.nazionala: Ucin Aluminio Usurbil-Dominicos Zaragoza

### Azaroak 20, igandea

■ 10:00 Alebin neskek, Errendimenduzko Gipuzkoako Txapelketa (lagun artekoa):

Usurbil K.E.-Ereintza

■ 11:00 Alebin mutilak, Errendimenduzko Gipuzkoako Txapelketa (lagun artekoa):

Usurbil K.E.-Ereintza

## Eskubaloia, selekzioa

### Azaroak 20, igandea

■ 15:30 Gizonezko kadete promesen euskal selekzioaren entrenamendu saioa, Urdulizko Iparralde Kiroldegian: Joseba Errazkin Bermejo eta Eneko Iribar Zumeta deitu dituzte hitzordua.

■ 15:30 Gizonezko kadete promesen euskal selekzioaren entrenamendu saioa, Getxoko Fadura Kiroldegian. Aitor Zubelzu deitu dute hitzordua.

■ 17:30 Emakumezko jubenil promesen euskal selekzioaren entrenamendu saioa Urdulizko Iparralde Kiroldegian. Eider Makazaga Estella, Nagore Lertxundi, Malen Azpiazu Zubeldia, Enara Eizagirre Hueta, Nahia Arbizu Zabal eta Ainhoa Illarramendi deitu dituzte.

**ETXEBIZITZA**

**Salgai**

Usurbilgo udalak etxebizitza bat jartzeko enkantean. Gubxieneko lizitazioa: 106.323 euro. Informazio gehiagorako: 94 337 19 51 edo kontratazioa@usurbil.eus

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, sarrera zabala, komun bat. Eguzkitsua, epela. Gela guztiak kanpoaldera, leihoarekin. Fatxada berritua, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60

Pisua salgai, Puntapax 4 behean. 43 metro<sup>2</sup>. Sukaldea, komuna, 3 gela. Gela guztiak leihoekin. Aparkaleku pribatuarekin. 120.000 euro. 637 902 096

Duplexa Kalezarren - Aizparrena etxea, 176 m<sup>2</sup> (120 eta 56) eta garajea 50m<sup>2</sup> eta terraza 9m<sup>2</sup>. Igogailua, fatxada berritua. Oso argitsua, bista onak. 679002101

Pisu bat salgai. 90 m<sup>2</sup>. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trasteleku. Dena kanpoaldera. 605 707 642.

78m<sup>2</sup> pisua Atxegalden. 4 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, balkoi luzea, trasteroa. Igogailua. Eguzkitsua. 215.000 euro. 656742207

BOE-ko 79m<sup>2</sup> etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpoaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trasteleku. 629631838

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran.

**OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA**

Orri honetan agertzen diren oharrik doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus  
Oharrik balditzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiagaen. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m<sup>2</sup>. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Inaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

**Alokairuan**

Alokatutako etxe baten bila nabil. 550 euro gehienez, bi getetakoa, Kaxkoxan ahal bada. Txakurra daukagu. 665 319 105.

Pisu bat 3 logelekin, sukaldea, egongela, 2 komun, Atxegalden, igogailua eta terraza. 637309209

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsua batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil

Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel: 620 708 265 / 686 143 7866.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737.

**MOTORRA**

**Salmenta,**

**garajeak**

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxe karnetarekin gidatu daitezke. 1990ekoak. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405.

Galtzaragainako garaje marra salgai. 20.000 euro. 687348223

Garaje itxia salgai, 38 m karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup>, Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Suzuki Vitara salgai. Diesela. 1998. urtekoa. Korrea aldatu berria. 630 490 844.

Garaje itxia alokatzen dut, 20 metro<sup>2</sup>, Kale Nagusia 22an. 618860270.

Garaje bat saltzen dut Erdiko-kalea, 10 zenbakian. 2 kotxerentzat. 48.000 euro. 699 720 940

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsua. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekatxiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Bi garaje saltzen dira. Bateria edo binaka. 21 eta 25 metro koadokoak Santuenea 17. 615149900.

**LANPOSTUAK**

**Lan eskaintzak**

Pertsona euskaldun bat, arduratsua behar da pertsona helduak zaintzeko. Malgutasuna. Tel. 607 233 255.

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarreraren altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

**LANPOSTUAK**

**Lan eskaerak**

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketan, jatetxe batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Papera egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Ingeniaritza

kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularrak, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanketa eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketa. Deitu edo bidali mezua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsalde, irailatik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaietan baratza lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo ospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Garbiketari lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketa lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Neska arduratsua bat eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Libre edozein momentutan hasteko moduan. 629 110 310.

Etxez etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile



**Zorionak Lide!**

7 urte beteko dituzu azaroaren 16an. Primeran ospatuko dugu zure urtebetetze eguna! Muxu bat!!

**Heriotzak**

**Rosario Aizpurua Ariztimuño**  
91 urterekin hil zen azaroaren 09an, Usurbilen



**Inaxi Eizaguirre Azpiz**  
91 urterekin hil zen azaroaren 13an, Zubietan



**OHARRA:** Azaroaren 25ean aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: azaroaren 21ean astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

tituluarekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziarekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketara. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehala lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziarekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabala duen emakumea eskaintzen da haurrek zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrek arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrek zaintzen eta udalekuetan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Lan bila nabil. Edozein lan egiteko nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen,

garbiketara lanak egiten, jabetxe-  
ren batean harraskako garbiketarako  
egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan  
egingo nuke asteburutan. Espe-  
rirentziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da pro-  
paganda edo gutunak banatzeko.  
Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak  
zaintzeko, baserriko lanetan ari-  
tzeko edota edozein lanetarako.  
Interno moduan lan egiteko  
prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat  
eskaintzen da, paper, esperientzia  
eta nazionalitatearekin, adineko  
pertsonek zaintzeko. 10 urteko  
esperientzia sukaldar, garbiketara.  
Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak  
ditut. Esperientzia biltegiko la-  
netan eta banaketan. 657 535  
299.

Pertsona helduak edo umeak  
zaintzen lan egingo nuke. Or-  
duka, interna edo egunean lan

egiteko. Papelekin eta erreferen-  
tzietan. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak  
zaintzen lan egingo nuke. Or-  
duka, interna edo egunean lan  
egiteko. Papelekin eta erreferen-  
tzietan. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna  
eskaintzen da pertsona helduak  
zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz  
dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mu-  
tila, pertsona helduak zaintzeko  
eskaintzen da. Interno moduan  
edo nahi den bezala. Badaki etxe-  
ko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen espe-  
rientzia asko duen mutil bat, lan  
bila dabil. Gauetan, orduka edo  
asteburutan. Tel. 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan,  
orduka edo asteburutan lan  
egiteko neska bat eskaintzen da.  
Paperekin eta esperientzia asko-  
rekin. Gomendio askorekin. 638  
602 597.

Neska bat eskaintzen da, hel-

duak edo umeak zaintzeko. 695  
602 828.

Arratsaldetan pertsona helduak  
zaintzen lan egingo nuke. 30 ur-  
teko esperientzia. 682 214 506.

#### BESTELAKOAK

Litera bat salgai, metalikoa, grisa  
eta 2 X 1,90 metroko neurriekin,  
salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aukil bat salgai, 2 -  
3 urteko ume batentzat. Arroxa.  
Tel. 646 305 658.

Katakumeak oparitzen ditut. Ba-  
serrian ohituak. Tel. 610 375 595.

Txokoalden, San Esteban gorra  
aldera igotzen, Mugi txartel bat  
aurkitu da. Izena: Jose Maria  
Otaegui Mugica. Udaltzaintetan  
dago, eta pasa handik bila.

Puntuak txaketa beige bat  
galdu zen uztailaren amaieran,  
anbulategi erdigune inguruan.  
NOAUA Ira ekarri mesedez.

Abuztuan Usurbilgo Udaltzain-  
gora haurrentzako botika eta  
higienerako produktuz betetako

laranja koloreko nezeder edo bo-  
tiki bat entregatu dute. Galdu  
duenak Udaltzaingoan galde  
dezala.

Pago egurra salgai (txinis-  
ko eta ekonomikoak egokia)  
627355126.

Maiatzaren 26an, 17:00ak alde-  
ra Oiardo Kiroldegian Golf gris  
auto bati kolpe txiki bat eman  
nion. Ohar bat utzi nion. Zurea  
bada jarri nirekin kontaktuan;  
635 71 35 97.

Katuak oparitzen ditugu Donos-  
tikatik elkarteetan. 633 273 747 /  
605 730 115

Nort Face markako eta urdin  
turkesa koloreko haur forro po-  
lar bat galdu da. Aurkitu baduzu  
deitu 678 084 020.

Mobilhome bat alokatzen dugu  
Landetan uztaileko bigarren  
hamabostaldian, uztailaren  
17tik 31ra. Aste bakarrerako edo  
hamabostaldirako alokatzeko  
aukera. 660 057 667

Italiera klaseak eskaintzen dira.  
Kontaktua: 699 609 058.

Borda baten bila gabitza Usur-  
bil inguruan. Gehienez 10.000  
metro koadroko terrenoarekin.  
Telefono zenbakia: 608 703 669

Legurretako babarruna salgai.  
10 eurotan kilo. 657 714 355

Haur-sila bat salgai. "Bebe con-  
fort" marka LA modeloa. Beltza  
eta berri-berria dago. Burbuja eta  
eguzkitakoarekin. 666 373 665.

3 plazako eta 2 plazako sofak sal-  
gai, lurrutakoak, egurrezko ertzekin.  
Egoera onean, 500 euro negozia-  
garri. usurbil72@hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. 634  
409 888.

Denborarik ez baduzu zure  
maskota paseatzeko, nik lagun-  
duko dizut. Ordubeteko ibilbi-  
deak. Asteburutan. 688 888  
176. Pablo.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, pati-  
netek, liburak... Garbigunean.  
Doan hartu daitezke. Astelehe-  
netik ostiralera: 10:15-13:00 /  
16:00-19:00 artean. Jai egunak  
ez diren larunbatetan: 9:00-  
13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreo - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitzea.....	943 372 336	Amenabar botika (Ihena Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Sabadell/Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 17** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Ostirala 18** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Larunbata 19** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Igandea 20** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Astelehena 21** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Asteartea 22** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Asteazkena 23** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

## Azaroak 17 - azaroak 27

**Osteguna 24** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 25** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Larunbata 26** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Igandea 27** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

\* LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita  
egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
URRUTIA YURREBASO, MAITANE  
Etxeberri auzoa 1. Florida auzoa, Hernani  
943 55 77 38 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda azaroa

## 18 ostirala

- **Gazteria topaketa:** 18:00etan Potxoenean. Deitzailea: Usurbilgo Ernai.

## 19 larunbata

- **Sorturen birfundazio prozesuko saioa:** 10:00etan Potxoenean.
- **Peña Zubeldiakoen bazkaria** 14:00etan Aginaga Sagardotegian. Aldez aurretik eman behar zen izena.

## 20 igandea

- **Txerri Festa Zubietan:** Goiz eta eguerdi partean azoka, erakusketa, bertsolariak... Ikus 14. orrialdea.

## Elkarteen Arteko Mus Txapelketako finala Erroizpen jokatu da

Aurtengo elkarten arteko mus txapelketa Txokoaldeko Erroizpek antolatuko du. Azaroaren 30erako elkarte barruko txapelketak burututa egon behar dute eta elkarte bakoitzetik finalera joango diren bi bikoteak zein diren jakinaraziko zaio Erroizpe Elkarteari egun horretan bertan elkartean 19:00etan egingo den bileran. Finala abenduaren 17an jokatu da Erroizpen arratsaldeko 16:30ean.

### Andazpe elkartearen oharra

XVIII. Elkarten Arteko Mus Txapelketa dela eta, Andazpe elkarteak bere bazkideen artean azaroaren 25ean 22:00etan



Andazpe elkarteko bazkideen arteko kanporaketa azaroaren 25ean jokatu da. Argazkia artxibokoa da.

egingo du kanporaketa. Beraz, bazkideen artean parte hartzeko irrikitan baldin badago elkartean eman beharko du izena.

## Gaztelaniazko literatura topaketa

Azaroaren 23an asteazkenarekin egingo da literatur topaketa. 19:00etatik aurrera, Sutegi udal liburutegian. Jon Bilbaoren "Bajo el influjo del cometa" ipuin-liburua aztertuko da saioan zehar. Ana Merino usurbildarrak gidatuko du saioa. "Parte hartzeko interesa duen edonorentzat, liburua eskuragarri daude Liburutegian", ohartarazi dute antolatzaileek.



Jon Bilbaoren ipuin liburu bat aztertuko dute.

### Datozenak

#### 18. Erle Eguna, azaroaren 27an

Urteko hitzordu gozoena ospatzeko astebete baino ez da geratzen. Honatx Erle Lagunak taldeak osatu duen egitaraua:

#### Azaroak 27, igandea

- 09:00-10:00 Ezti eta gozogintza bilketa.
- 11:00-14:00 Erakusketa (erleak, ez-tia, ontziratze prozesua...), postuetako salmenta, marrazki lehiaketa, bideoak Sutegin.
- 10:30 Ezti Kata Gidatua eta Ezti nola ateratzen den erakustaldia.
- 10:30 Argizariaren bildumena (prozesua).
- 13:30 Erleak beraiek ekarritako sari banaketa (aurten sorpresa eta guzti).
- 14:30 Bazkaria Saizarren (Frontoian izango dira tiketak salgai). Antolatzailea: Erle Lagunak.



Stand-etan, ezti erosteko aukera izango da.

# ELORZA

OBRAK ETA  
ERREFORMAK S.L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

## Iñaki Iturgintza


BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •  
ZORU BERO-EMALEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

Info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

600 024 825

## ETXETRESNEN KONPONKETAK

azkar, prezio onean MARKA GUZTIAK  
20 URTEKO ESPERIENTZIA



645417665

XABIER

Usurbil



# FUNERARIA GONZALEZ EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,  
HERIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**  
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

**943 36 21 63 (24H)**

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK



[www.funerariagonzalez.es](http://www.funerariagonzalez.es)

**AZKEN  
PLAZAK!**  
*garaiz zaude!*

## BIDAIA TALDEAN

Irteera Lasarte-Oriatik  
abenduaren 3tik 8ra

**Hegazkinak Bilbotik!**

**ISLANDIA**

Aurora Borealak

**AZKEN GELA!**

**1.940€**

**MUNICH**

Gabonetako merkatuak

**AZKEN 4 GELAK!**

**839€**

**KRUZEROA**

Guadalquivir ibaian

**BETETA**

**891€**

Persona bakoitzeko prezioak. Tasak barne. Informazioa eta erreserbak bulegoan.



**NOAOA BIDAIAK**  
GRUPO CLICK VIAJA

Hippocrate Etorbidea, 10 - 20160 Lasarte Oria, Gipuzkoa  
T. 943 373 613 | info@noaoabidaiak.com  
[www.noaoabidaiak.com](http://www.noaoabidaiak.com)



# pikabea

**ASEGURU ARTEKARITZA  
ETA GESTORIA ZERBITZUA**

**Telf: 943 37 11 18 fax-a: 943 37 19 97**  
**[pikabea@pikabeaaseguruak.com](mailto:pikabea@pikabeaaseguruak.com)**

Uzturre Plaza, 8 Lasarte-Oria J-0078EUS

# Produktu fitosanitarioen erabiltzaile txartela lortzeko ikastaroa



Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatibak eta Denbo-gestioneak, zenbait **produktu fitosanitario erosi eta erabili** ahal izateko **derrigorrezkoak diren txartela** lortzeko ondorengo ikastaroa antolatu dute.



**OINARRIZKO TXARTELA LORTZEKO IKASTAROA:**

Usurbilen, AZAROAREN 28tik  
ABENDUAREN 2ra

**15:00-20:00 POTXOENEAN**

Izen-ematea/ informazioa: Alkartasuna Kooperatiba  
Tel: 943361114 /emaila: [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com)